

GETXOKO ANDRÉS ISASI UDAL MUSIKA ESKOLAKO ZERBITZUGINTZAGATIKO TASAREN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2020. URTEA

Sarrera

1999ko irailaren 23an behin betiko onetsi zen Andres Isasi Udal Musika Eskolan zerbitzuak emateko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala. Harrezkero, zenbait aldiz aldatu da; azkena, 2016ko apirilaren 27ko udalbatzan.

Honelako zerbitzu publikoak gure autonomia-erkidegoan, estatuan eta Europar finantzatzeko gogoeta eta gomendioei jarraiki, Eskolaren finantzaketa, ekonomikoki jasangarria izan dadin, diru-sarreraren egitura hiru zati berdinetan banatu beharko litzateke: zerbitzuaren erabiltzaileen ekarpenak, toki-erakundearen ekarpenak eta administrazio orokorraren ekarpenak.

Onartu zen azken aldaketa autofinantzaketako koefiziente hori hobetzeko ildoan zihoan. Hala, Musika Eskolaren erabiltzaileek, 2016ko ekitaldian, euren ekarpenekin eskolaren finantzaketaren % 18a inguru estali dute. Portzentaje hori urrun dago arestian aipatu dugun portzentaje idealetik (% 33). Irakaskuntza-kuoten gehikuntza mailakatuak adierazle hori hobetu nahi du.

Finean, araugintza-ekimen hau tresnarik egokiena da, eta gure helburua lortzeko, hau da, autofinantzaketaren koefizientea hobetzeko, ezinbesteko arauketa dauka. Modu berean, proposamena bat dator segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioekin, ez du alferreko administrazio-zamarik ezartzen eta baliabide publikoen kudeaketaren aplikazioa arrazionalizatu nahi du.

I.XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzailerekin bat etorritik, Eranskinean jasotzen diren zerbitzuak eta jarduerak egiteagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu, Ordenantza honek ezartzen duen eran, haiek honen barne daudelarik.

2. Artikulua.-Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

II.ZERGA EGITATEA

3. Artikulua.- Zerga egitatea Udal Administrazioak zerbitzua edo jarduerak egitean datza, eskatu delako, eranskinean zehaztutako baldintzetan.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua.- Subjektu pasiboak dira, zergadunen kontzeptupean, zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, eta zerbitzu edo jarduera hauen onuradun edo nolabait hauei lotuta daudenak.

5. Artikulua.-Tasa ordaindu behar dute Udal Musika Eskolako zerbitzuen erabiltzaile edo onuradun diren pertsona fisiko eta juridikoak edo euren legezko ordezkariak.

IV. ZERGA OINARRIA

6. Artikulua.- Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, Eranskinean azaltzen den tarifak ezartzen duen eran.

V. KUOTA

7. Artikulua.- Kuota aurreko artikulutik sortzen den oinarriari dagokion tarifa ezarriz zehaztuko da.

VI. SORTZAPENA

8. Artikulua.- Ikasturterako matrikulazioa hastean sortzen da tasa eta ordaintzeko betebeharra, eta Ordenantza honetan araututako gainontzeko jarduera eta zerbitzuak erabiltzeagatik ere ordaindu beharko da.

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9.1. Artikulua.-Tarifan agertzen diren matrikularen zenbatekoak matrikula egiten denean abonatu dira, Musika Eskolak esaten duen eran eta irakaskuntza kuotak honela abonatu dira:

a) Bederatzi kargutan urritik ekainera artean (biak barne), bakoitza tarifan azaltzen den diru kopuru osoaren bederatziren bat izango da.

2.- Interesdunek, matrikula egiterakoan, irakaskuntza kuoten zenbatekoaren ordainketaren helbiderapena baimendu beharko dute banku edo aurrezki kutxaren batean, horretarako ematen zaizkine agiriak bete behar izango dituztelarik.

10. Artikulua- 1.- Kuotak interesdunak emandako kontuan zordunduko dira ikasturteko urriaren 1etik, eta gainontzeko hilebeteetako 16tik aurrera, ordainketa hurrengo 9 egun arte onartuko delarik edo hurrengo laneguna arte, epe honetan ordainketari aurre egiteko beste diru egon beharko delarik.

2. Ikasturtea hasita dagoenean Musika Eskolan izena emateak onartuko dira, betiere Eskolako taldeetako batean plaza hutsak badaude. Kasu horretan, klasean beranduago hasi den ikasle horrek izen ematearen tasa osorik ordaindu beharko du, baita dagokion ikastaroaren kuota hainbanatua ere. Ondorio horietarako, hainbanatzea hilabeteka egingo da, eta izen ematea egiten den hilabetea osorik zenbatuko da.

3. Sartzeko epea amaitu bada eta emandako kontuan kuotaren zenbateko osoaren ordainketari aurre egiteko beste diru ez bada egon premiamendu prozedura hasiko da.

4. Musika Eskolako taldean postu hutsak daudenean, Getxon helbideratuta ez dauden pertsonen matrikulazio ofizialak onar daitezke, Musika Eskolako Batza Artezkariak hala erabakiz gero. Kasu horietan, aurreko atalaren 3.ean ezarritakoarekin bat etorri aplikatuko dira kuotak, % 50ean gehituz, matrikulan izan ezik, berbera izango da.

11. Artikulua- 1-. Eskolaren Auditorio erabiltzeagatiko tasaren sarreraren %25 a ordaindu beharko da erreserba egiteko. Gainerako % 75a Musika Eskolako kontuan sartzeko epea gehienez 7 egunekoa izango da ekitaldia behin egina.

2.- Egindako erreserbak atzera botatzen badira, sartutako tasa bakarrik idatziz justifikatutako arrazoiak daudenean itzuliko da, hauek eskatutako erabilera baino gutxienez 4 egun arinago aurkezten badira.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 1999ko irailaren 23an onetsi ziren, eta plenoren akordioz 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, 2016ko apirilaren 27an, 2017ko uztailaren 26an, 2019ko urriaren 31an aldatu ziren. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta 2020ko martxoaren 01ean indarrean sartuko da, eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.

ERANSKINA. TARIFA

1. FOTOKOPIA ETA AGIRI ZERBITZUA

Fotokopien zerbitzuarengatik ondorengo tarifa ezartzen da:

A-4 Neurria	0,10 euro
A-4 Neurria (alde bietatik)	0,15 euro
A-3 Neurria	0,15 euro
A-3 Neurria (alde bietatik)	0,15 euro
Enkuadernazioak	1,55 euro

2. EKITALDIAK ETA KONTZERTUAK

Musikako Udal Eskolako Hitzaldi Aretoan edo bertatik kanpo Musikako Udal Kontsebatorio-Eskolak programatutako ekitaldi edo kontzertuetara joateagaitik Prezio Publikoak jotzaileen kostuen arabera ezarriko dira:

313,00 euro arte	4,00 euro arte
1881,00 euro arte	4,00 euro arte
3134,00 euro arte	5,00 euro arte
5015,00 euro arte	6,00 euro arte
6271,00 euro arte	7,00 euro arte
9403,00 euro arte	10,00 euro arte
12537,00 euro arte	12,50 euro arte
12537,00 euro baino gehiago	14,00 euro arte

3. IRAKASKUNTZA ETA AZTERKETA

Ikasturteko Matrikula 31,50 euro

Irakaskuntza kuotak:

Tresna	368,55 euro
Tresnarekin ukitze	47,25 euro
Irakasgai kolektiboak*:	207,90 euro

Irakasgai kolektiboak: Musika eta mugimendu, Lenguaiak musikala, Orkestra, Musika-taldea, Abesbatza, Kamara taldea, konboa, Informatika musikala, Teknika bokala.

Irakaskuntza indartuari dagozkion kuotak ziklo bakoitzerako laguntza pertsonalaren arabera aplikatuko dira, tresnaren irakaskuntzari dagokion kuota abiapuntu hartuta.

4. "ISASI" FUNTSEKO PARTITURAK ALOKATZEA

Andrés Isasiren senideen emandako Funtseko partiturak alokatzeko modua, Musika Eskolako Kontseilu Errektoreak arautuko du.

Honakoak dira aplikatu beharreko tarifak:

Obraren iraupena	Grabatzeko erabiltzea	Kontzertu baterako erabiltzea
30 minutu bitarte	682,00 euro	341,00 euro
60 minutu bitarte	1.136,00 euro	568,00 euro
90 minutu bitarte	1.364,00 euro	682,00 euro
120 minutu bitarte	1.820,00 euro	910,00 euro

Beti ere, fidantza bat ezarriko da, zeina materiala jasotzerakoan ordaindu eta hura itzultzerakoan berreskuratuko den, materialaren egoera egiaztatu ondoren. Fidantza hori 500,00 eurokoa izango da.

5. MUSIKA ESKOLAKO AUDITORIOAREN ALOGERA

Musikako Eskolaren alogera hitzaldiak, seminarioak, montaiak, zine edo bideo emanaldiak, musika ekitaldiak, kontzertuak eta Musika Eskolako Kontseilu Errektoreak baimendutako beste jarduera batzuk egiteko; ondorengo Tasa sortuko da.

A) Auditorioaren alogera, Isats-pianoa erabili gabe

Goizez erabiltzea (8etatik 15 orduetara)	423,00 euro
Arratsaldez erabiltzea (15 etik 22 orduetara)	500,00 euro
Egun osoz erabiltzea	769,00 euro

B) Auditorioaren alogera, Isats-pianoa erabiltzeko.

Egun osoz erabiltzea	1.920,00 euro
----------------------	---------------

6.- LIBURUTEGI-FONOTEKAZ KANPOKO BAZKIDEAK

Urteroko kuota 7,50 eurokoa izango da, eta bazkide bezala haren eskabidea onartzen denean ordainduko da.

7.- IKASGELAK

Ikasgela bat eskatzen duten eta ematen zaien eta zentroko ikasleak ez diren pertsonak ondorengo kuota hauek ordaindu beharko dituzte:

Ordu 1eko alogera 1,00 euro

8. INSTRUMENTUAK ALOKATZEA

Tresnak, hiruhileko 30,00 euro

Tresnak, hileko 10,00 euro